

Iragarpenak gainditu ditu

**200.000 LAGUNEK BAINO GEHIAGOK DUTE
EROSKI CLUB MASTERCARD KREDITU-TXARTELA**

- **Multitxartelak aukera ematen du EROSKI Clubeko programaren eta kreditu txartelaren abantailak bateratzeko EROSKIren denda sarean; hori da, hain zuzen, txartelaren jabeek estimatzen duten ezaugarrietako bat**
- **Badu beste ezaugarri nagusi bat ere: EROSKI tik* kanpo egindako erosketetan, %1 itzultzen da EROSKI Club txartel elkartura**
- **Kooperatibak 1,7 milioi euroko aurrezpena transferitu die EROSKI Club-Mastercard txartela dutenei**

Elorrio, 2018ko apirilaren 26a.- EROSKI Club-Mastercard kreditu txartelak 200.000 lagun baino gehiago ditu dagoeneko, eta onuradunak ari dira dagoeneko haren abantailez gozatzeko, dela aurrezpenekin, dela zerbitzuekin eta dela ordaintzeko erraztasunekin. EROSKI k iazko maiatzaren azken aldera atera zuen EROSKI Club kreditu txartel berria; horretan lagundu diote Mastercardek eta Santander Consumer Financek, eta helburua izan da kontsumitzaileei aurrezteko era berriak eskaintzea.

Martxan jarri zenetik urtebeterik igaro ez den honetan, oso baikorra izan da EROSKI Club - Mastercard kreditu txartelaren balantzea. *"Oso pozik gaude ikusirik nolako harrera egin dioten bezeroek Mastercardekin partekatutako ekimen honi, martxan den lehenengo urte honetan. Gaur egun, gero eta lehia gogorragoa dago, eta edozein enpresak du bezeroengana gerturatzeko eta berezitasun bat agertzeko premia. Eta, hain zuzen ere, hori da gure berezitasun estrategikoa, sorburutik bezeroekin dugun harremana, hori da-eta kontsumo kooperatiba gisa gure zerizana"*, esan du EROSKIren Marketin zuzendariak, Eva Ugartek.

Txartel berriak dakartzan abantailen artean, bezeroek asko estimatzen dute EROSKI tik* kanpo ordaindutako erosketen %1 aurrezpen bilakatzearena. Diru hori EROSKI Cluben txartel elkartuan sartzen da, Bezero Bazkideak diru gisa erabil dezan kooperatibaren edozein supermerkatu, hipermerkatu, gasolindegia, optika eta bidaia agentzian edo on line dendan erosketak egiteko orduan. Multitxartela izateak ematen duen erosotasuna ere nabarmentzen dute; izan ere, EROSKI Cluben fidelizazio txartelarekin lotua dago, eta, beraz, Bezero Bazkidea izateak dakartzan onura guztiak eta kreditu txartel batenak elkartzeko dituzten EROSKIren denda sarean erosketak egiteko orduan. Orain arte, kooperatibak 1,7 milioi eurotik gorako

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
XURDANA FERNANDEZ

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

**EROSKI – PRENTSA BULEGOA
CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

aurrezpena egin die EROSKI Club-Mastercard txartela dutenei, EROSKIIn trukatzeko beren ondoko erosketetan.

Gainera, erabiltzaileek asko estimatzen dute EROSKI Club-Mastercard kreditu txartel berriarekin eskura izatea, egunero, 300 euro ere, EROSKIren edozein dendatan, komisiorik gabe, titularrak erabil dezakeen kopuruaren barruan eta ohiko eran ordainduta.

Erabat doakoa da kreditu txartel hau, eta ez da ez sarrerako kuotarik ez mantenimendukorik ordaindu behar; gainera, mundu osoan erabiltzeko balio du, eta moneta aldaketetan ere ez du komisiorik. Era berean, malgutasun osoa ematen du ordaintzeko orduan, bai berehalako ordainketetan eta bai hilabete bukaerakoetan, inolako kosturik gabe, txartelarekin egindako erosketa guztietan, hala EROSKIIn nola kanpoko beste edozein saltokitan. Horretaz gain, EROSKI Cluben kreditu Txartel berria dutenek, Bezero Bazkideek, kanpaina bereziak izango dituzte EROSKIko erosketak egiteko, eta hori abantaila gehigarri bereziki esanguratsua izango da urteko zenbait sasoitan, hala nola oporretan, eskolara bueltan eta Eguberrietan.

EROSKI Club - Mastercard kreditu txartela edonoiz eskatu ahalko du kontsumitzaileak EROSKIren edozein dendatan, supermerkatutan, hipermerkatutan, gasolindegitan, optikatan edo bidaia agentzian.

* Kanpoan gelditzen dira hipermerkatuak eta bere gasolindegia eta supermerkatuak eta bere gasolindegia, elikadura dendak, jokoarekin eta apustuekin zerikusia duten erabilerak eta eskudiru ateratzeak eta uzteak, ez baitira ondasunak edo zerbitzuak erosteko operazioak. Zenbatekoa kalkulatzeko, erosketa garbia hartzen da (abonuak eta itzulketak kenduta), dendako saltzaileak komunikatutako jarduera tipologiaren arabera. ** Baita 300 euro ere titularrak erabil dezakeen mugaren barrenean eta ordaintzeko duen ohiko eran.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
XURDANA FERNANDEZ

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA**CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)



EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
XURDANA FERNANDEZ

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

**EROSKI – PRENTSA BULEGOA
CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)